

Lagun agurgarria:

“Politikoaren aurpegi anitz” izeneko urteko programarekin jarraituz, **“TEOLOGIA, GENEROA ETA FEMINISMOAK. BEGIRADA OROKOR BAT”** hitzaldira gonbidatzen zaituztegu. Hitzaldi hau iazkoa zen, baina azken orduan bertan behera utzi behar izan genuen pandemiagatik.

Historian zehar, emakume asko jabetu dira sexuen arteko benetako desberdintasunez, eta, horren ondorioz, beren buruari galdetu diote zer arrazoik sostengatzen zuten beren lekua, beti bigarren mailakoa, gizartean. Modernitateak kontzientzia femeninoa sorrarazi zuen, hausnarketa propioa eratu zuen eta emakumeentzako eskubideak eta espazioak konkistatzea ahalbidetu zuen. Horrela jaio zen “feminismoa”; haren bilakaera eta dibertsifikazioagatik, gaur egun hobe litzateke **“feminismoak”** deitzea.

Teologia, Jainkoa aztergai duen zientzia den aldetik, eta horrekin zerikusia duten gai guztiak bere “DNA” inskribatuta daramatzan zientzia gisa, belaunaldi, kolektibo edo kultura bakoitzaren erronkei zentzuzko erantzunak eskaintzera deitua dago, eta gaur egun emakumeek esan eta salatzen dutena pentsamendu erlijiosoarentzat saihestu ezin daitekeen errealitatea da.

Desberdintasun sexualak kontu biologiko bat ez ezik, mundua hautemateko eta gizonen eta emakumeen arteko harremanak taxutzeko modu bat ere eraiki dela aitortzea paradigma aldaketa baten beharra mahai gainean jartzea da, narratiba androzentrikoa gainditu eta egungo gizarteen euskarri diren **genero**-desberdintasunak agerian uzteko.

Bere diskurtso teologikoaren zati handi bat esparru kultural patriarkal batean eta kosmobisio androzentriko batean eraiki da, eta gaur egun beste era batera irakurri behar da, Jainkoari buruzko hizkera inklusiboagoa eta emakumeen esperientziarekiko errespetuzkoagoa izan dadin. Ebanjelioaren berri ona salbazioa eta askapen gorpuztua bada, feminismoak eta Jainkoaren hitzak topo besterik ezin dute egin. Eta topaketa horren bilaketan eta artikulazioan dago gaur egun **teologia feminista**.

Horretarako, **CARMEN SOTO VARELA** San Joseren Mirabea Erlijiosoa izango dugu, Teologian doktorea dena Eskritura Santuko espezialitatean Pontificia Comillas Unibertsitatean, Historia Garaikideko lizentziaduna Santiago de Compostelako Unibertsitatean, eta gaur egun Espainiako Teologoen Elkartearen presidenteordea da, besteak beste.

Loli Asua, Gizarte eta Politika Zientzietan eta Teologian lizentziatua, moderatzailea izango da.

Hitzaldi hau datorren **martxoaren 11an, osteguna, izango da, 19: 00etan**, online, **Zoom** aplikazioaren bidez.

Parte hartzeko **ezinbestekoa da aldez aurretik** esteka honetan **izena ematea**, hilaren **10era** arte: <https://feyjusticia.org/actividades-presencia-publica-afes/>

Izen-ematea baieztatuko dizuegu eta aurreko egunean hitzaldira sartzeko jarraibideak bidaliko dizkizuegu.

Zuen zain gaude. Agur bero bat.

Bilbao, 1 de marzo de 2021

Querido/a amigo/a:

Continuando con nuestro programa anual “Los múltiples rostros de lo político”, os invitamos a la charla “**TEOLOGÍA, GÉNERO Y FEMINISMOS. UNA MIRADA GLOBAL**”. Esta charla estaba prevista para el año pasado, pero tuvimos que suspenderla a última hora por la pandemia.

A lo largo de la historia, muchas mujeres han sido conscientes de las diferencias reales entre los sexos y esto las ha llevado a preguntarse qué razones sustentaban su lugar, siempre secundario, en la sociedad. La modernidad propició el nacimiento de una conciencia femenina, que configuró una reflexión propia y posibilitó la conquista de derechos y de espacios para las mujeres. Así nació el “feminismo”, que, por su evolución y diversificación, hoy sería mejor llamar “**feminismos**”.

La **teología** como ciencia que tiene como objeto de estudio a Dios y todos los temas que tienen relación con él lleva inscrito en su “ADN” está llamada a ofrecer respuestas de sentido a los desafíos de cada generación, colectivo o cultura y hoy lo que las mujeres están diciendo y denunciando es para el pensamiento religioso una realidad que no puede eludir.

Reconocer que las diferencias sexuales no son sólo una cuestión biológica, sino que sobre ellas se ha edificado un modo de percibir el mundo y de configurar las relaciones entre varones y mujeres, es poner sobre la mesa la necesidad de un cambio de paradigma que supere la narrativa androcéntrica y ponga en evidencia las desigualdades de **género** en las que se sostienen las sociedades actuales.

Gran parte de su discurso teológico se ha construido en un marco cultural patriarcal y una cosmovisión androcéntrica y hoy es necesario leerlo de forma diferente, para que el lenguaje sobre Dios sea más inclusivo y respetuoso con la experiencia de las mujeres. Si la buena noticia del evangelio es salvación y liberación encarnada, el feminismo y la palabra de Dios no pueden hacer otra cosa que encontrarse. Y en la búsqueda y articulación de ese encuentro está hoy la **teología feminista**.

Para ello contaremos con **CARMEN SOTO VARELA**, Religiosa Sierva de San José, que es Doctora en Teología en la especialidad de Sagrada Escritura por la Universidad Pontificia Comillas, Licenciada en Historia Contemporánea por la Universidad de Santiago de Compostela, y actualmente es vicepresidenta de la Asociación de Teólogas Españolas, entre otras responsabilidades.

Loli Asua, licenciada en Ciencias Sociales y Políticas y en Teología, será la moderadora.

La charla tendrá lugar el próximo día **11 de marzo, jueves, a las 19 horas**, de forma online, a través de la aplicación **Zoom**.

Para acceder a la misma es **imprescindible inscribirse previamente**, en el siguiente enlace, hasta el día **10** inclusive: <https://feyjusticia.org/actividades-presencia-publica-afes/>

Os confirmaremos la inscripción y el día anterior os mandaremos las instrucciones para acceder a la charla online.

Os esperamos. Un saludo.

Asociación de Comunidades Cristianas Fe y Justicia

Asociación para la Formación y Estudios Sociales – AFES



Asociación para la Formación y Estudios Sociales
Heziketa eta Giza Ikasketarako Elkartea